

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 ikasturtea

IKASLE IJITOAK ESKOLAN: HEZKUNTZA INKLUSIBORAKO BIDEAN

Egilea: Andrea Amezaga Mariezcurrena

Zuzendaria: Nuria Galende Pérez

Leioan, 2015eko ekainaren 1ean

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA



EGILEAREN ONIRITZIA



AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| Sarrera..... | 4 |
| 1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera | 5 |
| 2. Metodologia..... | 10 |
| 3. Lanaren garapena | 11 |
| 4. Emaitzak eta ondorioak | 17 |
| 5. Bibliografia | 25 |

ERANSKINAK

IKASLE IJITOAK ESKOLAN: HEZKUNTZA INKLUSIBORAKO BIDEAN

Andrea Amezaga Mariezcurrena

UPV/EHU

Umeen garapen psikologikoan bi oinarrizko faktorek eragiten dute, besteak beste: familia eta eskola. Hortaz, familia hain garrantzitsua izanda, horren kulturak lehen mailako papera hartzen du garapen horretan. Kultura ijitoa ikerketaren oinarri bezala hartuta, beharrezkoa da ume horien egoera behatzea. Hori dela eta, lan honek objektibo bikoitza dauka: kultura ijitoaren ohiturak zein eskolarekiko duen harremana ezagutzea eta eskolaratze arrakastatsuen klabeak lortzea. Eskola, gizartearen ordezkari bezala, pertsona guztien eskubideak betetzen dituen berdintasunezko gizarteak sortzeko oinarrizko eta erantzukizunezko bidea da.

Garapen psikologikoa, kultura ijitoa, eskola, familia, inklusioa

Dos factores fundamentales influyen en el desarrollo psicológico de los niños, entre otros: la familia y la escuela. Por lo tanto, siendo la familia tan importante, su cultura cobra un papel protagonista en ese desarrollo. Cogiendo como base de la investigación la cultura gitana, es necesario analizar la situación de esos niños. Es por ello por lo que este trabajo tiene un doble objetivo: conocer las costumbres de la cultura e investigar su relación con el sistema educativo y lograr las claves para una satisfactoria escolarización. La escuela, como representante de la sociedad, es la vía fundamental y responsable de crear una sociedad igualitaria en la que se cumplen los derechos de todas las personas.

Desarrollo psicológico, cultura gitana, escuela, familia, inclusión

Two fundamental factors have influence in the psychological development of children, among others: the family and the school. Therefore, being the family so important, his culture takes a leading role in that development. Taking as a basis of the investigation the gypsy culture, it is necessary to analyze the situation of those children. For this reason this work has a double objective: to know the customs of the culture and to investigate its relationship with the educational system and to reach the keys for a successful schooling. The school, as a representative of the society, is the fundamental and responsible pathway for creating an egalitarian society in which the rights of all people are achieved.

Psychological development, gypsy culture, school, family, inclusion

Sarrera

Ikerketa lan honen bitartez, familia ijitoen kultura eta horrek eskolan daukan onarpena behatzea lortu nahi da. Horretarako, beharrezkoa izan da garapen psikologikoaren eragile nagusienak aintzat hartzea, kultura eragile garrantzitsu bat den ezagutzeko. Horretan gehiago sakonduz, kultura minorizatuen eta gehiengoaren arteko ezberdintasunak aintzat hartzea baliagarria izan da familia ijitoen egoerari buruzko ezagutza gehiago lortu ahal izateko.

Ildo beretik jarraituz, kultura ijitoa ezagutzeaz aparte, haien kulturaren eta gaur egungo eskolaren arteko harremanak behatzea izan da helburu nagusia. Hau da, kultura ijitoaren inklusioa Hezkuntza Sistematan noraino lantzen den eta zelan zabaltzen den ezagutzea. Horretarako, ijito kopuru altua duen eskola batera hurbiltzea proposa izan da horren inguruko behaketa hurbilagoa egin ahal izateko. Hortaz, oso lagungarri agertu den ikastetxe batera joatea funtsezkoa bilakatu da. Ikastetxea Zabalburun kokatuta dago; hortaz, aipatzekoa da auzo honen maila ekonomikoa ertain baxukoa dela, egoera hori ikastetxean islatzen delarik.

Beraz, ikerketan oinarritutako lan honetan, behin informazio ezberdina eskuratuz gero, beharrezkoa izan da ikasle ijitoekin zein haiekin lan egiten duten irakasleekin elkarrizketa ezberdinak gauzatzea errealitatean ematen den egoera behatu ahal izateko. Modu horretan, haien pentsamenduak orain arte horri buruz sortu diren teoria ezberdinekin alderatzea posiblea izan da, ijitoen egoera hobeto ezagutzeko eta ulertzeko.

Hori guztia aurrera eramateko, lana atal ezberdinez osatuta egongo da. Lehenik eta behin, esparru teorikoa eta kontzeptuala agertuko da, non garapen psikologikoaren eragileak, kulturaren garrantzia eta ijitoen kasu zehatza azalduko diren. Bigarrenik, metodologian ikerketa bibliografikoa gauzatzeko erabili diren estrategia ezberdinak azaldu dira. Ondoren, lanaren garapenari erreparatuz, prestatutako elkarrizketak gauzatzeko teknikak azaldu dira. Bukatzeko, elkarrizketekin lortu diren emaitzak eta horiei esker hausnartutako ondorioak agertuko dira.

Azkenik, aipatutako guztia aintzat hartuz, kontuan hartzekoa da, ikerketa lan honek etorkizunerako bide ezberdinak irekita uzten dituela, aurrerago azalduko den bezala.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

Umeen garapen psikologikoa aztertzerakoan, funtsezkoa da kontuan izatea familien testuinguruak duen eragina. Izan ere, gaur egungo gizartea kontuan izanik, umeen sozializazioan eta garapenean lehen mailako eragile nagusienak familia eta eskola dira, ingurunearen eta indibiduoaren arteko lotura ezartzen dutelarik (Rodriguez, 2007).

Illo horretan, familiaren garrantzia hain nagusia izanik, beharrezkoa da aipatzea umearen garapen psikologikoa eragina duten familien testuinguruko aldagai ezberdinak. Horretarako, Arranz eta Olivak (2010) defendatzen duten moduan, ume baten garapenean bi arlo nagusi azpimarratu ahal dira, besteak beste: alde batetik, garapen kognitiboa, eta bestetik, emozionala. Hori horrela izanik, bi elementu horietan familien testuinguruek nola baldintzatzen duten kontuan hartu behar da.

Garapen kognitiboari dagokionez, bi azpi aldagai hartzen ditu kontuan. Alde batetik, testuinguruan oinarritzen da, non familien inguru fisikoa, ikasketa materialak, gurasoen formazioa... barne hartzen dituen. Eta bestetik, interakzioa, zeina familien arteko erlazio estilo eta ohituretan zentratzen den. Bi aldagai horiek umeen garapen kognitiboan eragina izango dute, haien inguruan topatu ahal diren baliabideek eta erlazioek funtsezko papera hartzen baitute. Adibidez, Afrikako herri batean bizi den nekarazi familia bat edo Europako hiri industrializatuan bizi den familia baten arteko ezberdintasunak nabariak izango dira. Hala nola, gerta daiteke lehenengo familian umeen laguntza etxeko ekintzetan beharrezkoa izatea, Europako hiri industrializatuko umeak eskolara doazen bitartean. Hortaz, testuinguru ezberdinak dituzten bitartean, interakzio ezberdinak jasango dituzte, garapen kognitiboa guztiz desberdina izanik (Arranz & Oliva, 2010).

Garapen emozionalaren kasuan, aurreko bi azpi aldagai berdina ditu eredu, testuingurua eta interakzioak, hain zuzen. Testuinguruari dagokionez, familien euskarria aztertzen du, hau da, familiaren maila sozioekonomikoa edo hezkuntza maila, besteak beste. Interakzioetan, aldiz, emozioak adierazteko gaitasuna eta familia kideen arteko dependentzia aztertzen du. Esaterako, ezberdintasun oso handiak ikusiko dira familien sinesmenak kontuan hartzerakoan. Izan ere, sinesmen horiek haien bizimodua erabat baldintzatzen dute, hala nola, janari batzuk

jaterakoan, festa batzuk ospatzerakoan, emakumearen rola interpretatzerakoan... Hortaz, testuinguru ezberdinak duten bitartean, interakzio ezberdinak jasango dituzte, garapen emozionalean, aurrekoan bezala, eragina edukiz (Arranz & Oliva, 2010).

Gorago aipatu den bezala, kontuan hartzekoa da aztergai diren elementu hauek gehienetan kulturarekin erlazio zuzena dutela. Hori dela eta, kulturak familiaren testuingurua eta interakzioak baldintzatuko ditu, bide batez umearen garapen psikologikoan eragiten duelarik. Aldez aurretik aipatu diren adibideak eredugarri izanik, kontuan hartzekoa da munduan dagoen aniztasuna izugarritzkoa dela. Hortaz, familia bakoitzak egoera ezberdinak eragingo ditu haien kulturaren arabera, modu horretan, umeak modu ezberdinetan heziz. Hori dela eta, ez da ahaztu behar gizartean zein eskolan topatu ahal diren ume guztiek egoera eta esperientzia desberdinak bizi dituztela, era horretan, haien arteko ezberdintasunak izugarritzkoak izanik.

Familiaren eragina garrantzitsua izan arren, eskolarekiko duen elkarrenganako menpekotasuna argia da. Izan ere, umeen garapen psikologikoan testuingurua erabakigarria da, hortaz, kontuan hartu behar da, hori banaezina dela. Gainera, ez da elementu finkoa, baizik eta era dinamikoan eratzen den elementua. Hori dela eta, posiblea da esatea eskola eta familia hezkuntza garapenean eragina duten faktoreak direla (Lacasa, 2010). Hortaz, familiaren eta eskolaren elkarlana aurrera eramatea oso garrantzitsua izango da umeen garapen aproposa lortzeko.

Aipatutako guztiarekin bat eginez, beharrezkoa da kontuan izatea, familien testuinguruak eragina duela bai umeen garapenean, baita eskolarekiko erlazioan ere. Horregatik, familia bakoitzaren kulturak eta ohiturak erabat baldintzatuko dute umea. Izan ere, kultura berean parte hartzen duten pertsonak komunitate bateko partaideak direla esaten da. Hortaz, haien jarrerak eta gizartean parte hartzeko estrategiak antzekoak izango dira. Hori dela eta, mundua antzeko eran antzematen dute haien inguruko elementuak elkarbanatzen dituztelarik (Crespo & Lalueza, 2003). Beraz, familiaren kultura umearen garapen psikologikoan eragile garrantzitsu bat izatera pasatuko da.

Ildo horretan, ezinbestekoa da kontuan izatea, gizarteak gero eta kultur aniztasun handiagoa duela. Izan ere, azken urteetatik hona, egoera sozial berri honek gizartean izugarritzko inpaktua izan du. Hori horrela izanik, hezkuntzak funtsezko papera hartzen du pertsona guztien

berdintasuna eta eskubideak ziurtatzeko beharra izanik (Essomba, 2006). Hau da, kultura bakoitzak dituen berezko balioak eta jarrerak testuinguru berean kokatuz gero, beharrezkoa izango da kultur guztien beharrak asetzen dituen gizarte egoera globala topatzea. Beraz, eskolaren funtzioak lehen mailako garrantzia hartzen du, kulturak nahasten dituen euskarria baita.

Aipatutakoarekin batera, globaltasun hori aurrera eramaten den bitartean, umearen garapen psikologikoa bere familiaren kulturarekin zein beste kulturetako kideekin garatzea posiblea da. Carbonell-en (1995:14) arabera: “La vivencia del contraste y de la diversidad es una herramienta magnífica para comprendernos mejor a nosotros mismos, y la opción decidida por la solidaridad y la lucha contra toda forma de exclusión, una excelente manera de encontrarle un sentido a nuestro quehacer educativo.”

Hortaz, interesekoa izango litzateke kultur aniztasuna umeen garapena aberasteko estrategia bezala erabiltzea, baina errealitatean kultur guztiak ez daude maila berean. Izan ere, gure egunerokotasuneko bizitza sinplifikatzeko aitzakiarekin, beste kulturetako pertsonekin ez gara harremanetan jartzen. Hortaz, horrelako ezberdintasunak sortuz gero, gizartea pixkanaka hierarkizatuz doa, beste etnia edo kulturetako pertsonen integrazioa zailtzen delarik (Grupo INTER, 2005). Horren ondorioz, gizarte batean bi motatako kulturak aurki ditzakegu: alde batetik, nagusia eta bestetik, gutxiengokoak. Egoera hori oso modu argian islatzen da Hezkuntza Sisteman, non kultura nagusia ikasle guztien kultura bezala zabaltzen den.

Era berean, autore ezberdinek aipatzen dute, gutxiengoko kulturetako umeei askotan dituzten eskolaz kanpoko esperientzia familiarak aberastasun edo konplexutasun gutxikoak direla, umeei errekurtso kognitiboak eta linguistikoak faltan izanik (Labov, 1972). Hori horrela izatekotan, haien eskolara joateko prestakuntza eskasa izango litzateke. Hala ere, ikuspegi hori ez da guztiz zuzena; izan ere, gutxiengo horren barnean sartzen diren umeen arazoa ez da beti (eta bakarrik) errekurtso falta, baizik eta arau ezberdinetako errekurtsoak erabiltzen dituztela (Poveda, 2001). Hortaz, eskolak jarrera aldaketa planteatu beharko luke, ume guztien estrategiak, beharrak eta errekurtsoak aintzat hartuz.

Ildo beretik jarraituz, egoera horretan aurkitzen den kultura batean zentratzea interesgarria izango da, kultura ijitoa hain zuzen ere. Crespok eta Laluezak (2003) aipatzen duten moduan, eskolaratze prozesua oso ezberdina da kulturaren arabera. Alde batetik, ijitoak ez diren familientzako, bere komunitatean betetzen den ohitura bezala ulertzen da, haien errealitatearen parte izanik. Beste aldetik, gutxiengo talde batentzako, beraien kulturarekin bat ez datozen hainbat arau, hizkuntza estrategiak eta erlazio motak zabaltzea eskatzen du. Hori dela eta, gutxiengoko kultura horietan aurkitzen diren umeen garapen psikologikoak hainbat kontraesan topatzen ditu. Horrelako egoeran topatzeak, umearenganako ezegonkortasun psikologikoa ondoriozta dezake.

Egoera horretan, Povedak (2001) adierazi zuen moduan, kultura ijitoa gutxiengo horren parte osatzen duten kulturetako bat da. Horren inguruan gehiago sakontzeko asmoz, interesgarria izango litzateke, kultura horren berezitasunak eta ohiturak azaltzea. Era horretan, posiblea izango da, umeen garapen psikologikoa eta eskolarekiko duten harremana hobeto ulertzea. Ildo beretik jarraituz, interesgarria da kontuan izatea ijitoen kulturaren heterogeneotasuna oso agerian dagoela, hau da, komuneko hainbat ezaugarri topatu arren, haien artean aurkitu ahal diren ezberdintasunak garrantzitsuak dira (García Guzman, 2005). Hala ere, ijitoen kultura definitzeko helburuz, hurrengo lerroetan lan hau komuneko elementuetan zentratuko da.

Montoyak (1988) honako ezaugarri hauek adierazten ditu familia hauen inguruan. Lehenik eta behin, interesgarria izango da aipatzea, ijitoen oinarritzko elementua familia dela. Hau da, haien hezkuntza eta egoera soziala zein ekonomikoa baldintzatzen duen oinarria. Pertsona hauentzako, familiak egonkortasuna ekartzen du, talde konkretu baten partaide izanik eta bakardadea erabat deuseztatuz. Haien artean duten elkartasuna haien segurtasun sozial zein psikologikoan zentratzen da. Beraz, kultura honetan hezten diren umeen garapen psikologikoa familiaren gidapenean egongo da.

Horrekin batera, garrantzitsua izango da aipatzea, ijitoen ohituren barnean, badaudela batzuk eskolarekin harremanak izateko prozesuan zailtasunak ekartzen dituztenak (Abajo Alcalde, 1996). Horren adibide gisa, ezkontza goiztiarra, jarduera laboraletarako sarrera goiztiarra, edota maila sozioekonomiko ertain-baxua, besteak beste. Hori dela eta, askotan eskola baldintzatuta

ikusten da ume hauekin lan egiterakoan. Izan ere, eskolan egoteko adina izan arren, haien bizimodua eskola ohiturekin ez dator bat.

Ildo beretik jarraituz, eskolarenganako hurbiltasun sentimendua eskasa da; horregatik, absentismoa haien inguruan etengabe dagoen errealitatea da. Aldez aurretik aipatutakoa kontuan hartuz, ume bat lanean aritzen den bitartean edota ezkontza bidean pentsatzen dagoenean, eskola sisteman ez da integratuta sentitzen. Gainera, eskolan gutxiengoko kulturako partaideak izanik, Hezkuntza Sistemaren lantzen diren kontzeptuak eta helburuak haien errealitatekin urrun daudela sentitzen dute.

Aurrekoarekin bat eginez, askotan kostagarria da onartzea Hezkuntza Sistemaren gizarte aniztatean ematen diren arazo estereotipatu berdinak gertatzen direla. Horregatik, ijito bat eskolara joaten denean, egoera konplexu batekin topatzen da. Lehenik, klaseko kideekin ez da integratuta sentitzen; era berean, irakasleen estrategia pedagogikoen ez dute haien errealitatearekin bat egiten; bukatzeko, Hezkuntza Sistemaren landu beharreko kontzeptuak eta erabiltzen diren materialek ez dute ume ijitoen kultura kontuan hartzen. De Haro Rodriguezek (2009) defendatzen duen moduan, diskriminazioa, segregazioa eta esklusioa modu zeharresanean ematen da.

Beti pentsatu da eskolako jarduerak ume guztiak barne hartzen dituztela, baina gero eta gehiago ikus daiteke Hezkuntza Sistemak, gizartearen bezala, beren ekintzen eta jardueren ondorioz, alde batera uzten dituela ijitoak baztertuta. Horren aurrean, esatekoa da, eskolaren funtzio nagusienetarikoa bat, ikasleen ezaugarri soziokultural ezberdinak integratzea dela; horretarako, kultura gutxiengoak nagusiarekin batera landuz gero, ikasle guztiek baldintza, eskubide eta betebeharrak berdinak izatea posible izango litzateke (De Haro Rodriguez, 2009).

Lehen aipatutako ijitoen ohiturak kontuan hartuta, lan eta ezkontza goiztiarra haien kulturetako ezaugarriak izan arren, gaur egun, familia ijitoek umeen arrakasta lortu nahi dute. Haiei gustatuko litzaieke haien seme-alaba guztiek irakurtzen zein idazten ikastea. Beraz, pixkanaka eskolarekiko balorazioa asko aldatu da, horren garrantzia ulertzen dutelarik. Arazoa sortzen da eskolaren aurrean sentitzen duten beldurratik; azken finean, Hezkuntza Sistemaren balioa ulertzen dute, baina horretatik kanpo sentitzen dira. Hortaz, Abajo Alcaldek (1996) defendatzen

duen moduan, eskolan arrakasta izateko aukera gutxi dutelakoan daude. Beraz, azkenean, motibazio eskas horrekin, haiengan espero den porrota sortzen da.

Horren ondorioz, aipatzekoa da, familien jarrera Hezkuntza Sistemarekiko, zenbat eta aktiboagoa izan, orduan eta umeen garapena positiboagoa izango litzatekeela. Izan ere, hasieran aipatu den moduan, umeen garapenaren eragile nagusienak familia eta eskola dira; hortaz, bi horien arteko koherentzia ematekotan garapena positiboagoa izango litzateke. Baina harmonia hori gauzatu ahal izateko familien zein eskolaren partetik aldaketa sortzea beharrezkoa izango litzateke. Alde batetik, familiek eskolarekiko duten identitatea galtzeko beldurra deuseztatuz, eta bestetik, eskolak ijitoen kultura hezkuntza prozesuan sartuz.

Horren aurrean erantzuteko asmoz, interesgarria da Montoyak (1988) aipatutakoa kontuan hartzea: “Precisamente ahí está el primer paso imprescindible para empezar a realizar la labor pedagógica con los gitanos: hacer un esfuerzo de reflexión permanente para aprender el universo gitano, comprender sus claves y utilizarlas para reelaborar el discurso pedagógico.” Hau da, ume ijitoen garapen psikologikoa eta bi esparru horietan behar bezala garatzeko, beharrezkoa da bi instituzioen arteko elkarlana.

Hortaz, lan honetan zentratuz, aipatzekoa da, aurreko guztia behin aztertuta, lanaren xede nagusia kultura ijitoen ezagupenean eta eskolarekin duen harremana ezagutzean zentratzen dela. Izan ere, bi horiek ondo ezagutuz gero, umeen garapen psikologikoa ahalbidetzeko beharrezkoa den elkarlana proposatzeko aukera egongo da.

2. Metodologia

Ikerketa bibliografikoan zentratzen den lan hau aurrera eramateko, datuak biltzeko eta aztertzeko beharrezkoa izan da prozedura ezberdinak jarraitzea. Hori dela eta, garrantzitsua da desberdintzea erabili diren bi informazio iturri nagusiak. Izan ere, iturri bakoitzak metodologia zehatz baten bitartez lortu da, eskuratutako informazioa osagarria izanik.

Lehenik eta behin, familiek eta eskolak duten eragina umeen garapen psikologikoan aztertzeko, ikerketa bibliografiko sakona gauzatzea beharrezkoa izan da. Horretarako, datu baseak eta liburutegia erabiltzea funtsezkoa izan da, azken urteetan egindako ikerketak barneratuz. Era berean, hausnarketa familia ijitoen egoeran zentratu den heinean, haien errealitatea ulertzeko eta horren inguruan gehiago ezagutzeko, prozedura berbera jarraitzea beharrezkoa izan da.

Ilido horretan, hasierako informazioa behin eskuratu ostean, bigarren prozedura gauzatzea aproposa izan da. Horretarako, ijitoekin zein irakasleekin kontaktuan jartzea interesgarria izan da, modu zuzenean dagoen errealitatea ezagutu ahal izateko. Prozedura hori aurrera eramateko, eskolako zuzendaritzari zein gurasoei baimena eskatzea (Ikus 1. eranskina) beharrezkoa izan da, sortutako elkarrizketen berri emateko.

Bukatzeko, baimen guztiak eskuratu ostean, 7 urtetik 17 urtera arte zituzten ikasleekin gauzatu dira elkarrizketak. Modu horretan, adin anplitudea zenbat eta zabalagoa izan, iritziak gero eta anitzagoak lortzeko aukera egon baita. Horren ostean, Lehen Hezkuntzako zein Bigarren Hezkuntzako irakasleekin aurrera eramateko elkarrizketak sortu dira (Ikus 2. eranskina), aurreko informazioa osatuz.

Beraz, laburbilduz, lan bibliografikoa izan arren, informazio iturri teorikoak zein praktikoak erabili dira, ikerketa zati bat edukiz ere. Modu horretan, ezagututako datu teoriko guztiak errealitatean kontrastatzeko aukera egon da, kultura ijitoen ezagutzak gero eta gehiago garatuz.

3. Lanaren garapena

Ikerketa prozesuaren metodologia zehaztuz gero, informazioa eskuratzeko teknikak deskribatzea funtsezkoa da. Lana aurrera eramateko, hasiera batean ikertutako gaiaren inguruko errealitatea topatu ostean, hau da, ijito kopuru altua duen eskola topatzean, beharrezkoa izan da, lortutako informazioa eskola horretara egokitzen den behatzea. Era berean, ijitoekin kontaktu zuzena izateko aukera izanik, interesekoa izan da eskola horren egoera zehatzean zentratzea.

Ikerketa gauzatzeko erabili den ikastetxea¹ Zabalburun kokatuta dagoen itunpeko ikastetxe erlijioso da. Ikastetxearen errealitatean zentratu ahal izateko, interesekoa izango da honen testuingurua azaltzea. Izan ere, Robles Martín-ek (2009:1) defendatu zuen moduan: “Las escuelas son el reflejo de la sociedad, por lo que es necesario que se analicen conjuntamente. No podemos estudiar los cambios que se han producido en la escuela sin tener en cuenta los cambios que ha experimentado la sociedad, porque estos últimos influyen en los primeros, y viceversa. “

Ildo horretan, beharrezkoa da aipatzea, Zabalburuko egoera sozioekonomikoa ertain baxua dela. Ez bakarrik hori, interesekoa da kontuan izatea, eskolan Miribillako, San Franciscoko eta Zabalako ikasleak ere topatzen direla, aurreko egitura sozioekonomikoa mantentzen dituzten auzoak izanik. Hortaz, ondorioztatu ahal da, ikastetxeko ikasle gehienen familien egoera sozioekonomikoa ertain baxua dela. Ildo beretik jarraituz, aipatzekoa da Bilboko zonalde horietan kultur aniztasuna oso nabaria dela, egoera hori eskolan era zuzenean islatzen delarik.

Behin ikastetxearen testuingurua aipatu ostean, interesekoa izango da honen ezaugarri nagusienak zehaztea. Lehenik eta behin, beharrezkoa da kontuan izatea, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasketak zabaltzen duen ikastetxea dela. Hala ere, hiru etapak zabaldu arren, eskola ertaina dela esan beharra dago, Haur eta Lehen Hezkuntzan unitate bakarra egonik eta Bigarren Hezkuntzan, aldiz, bi unitate. Bigarren Hezkuntzan ematen den anplitude horretan zentratzea interesekoa izango da, izan ere, sarrera horrek eskolako ijitoen kopurua era adierazgarrian handitzea ekartzen du. Era berean, aipatzekoa da, eskola publikoko ikasle askok Bigarren Hezkuntzan ikastetxe honetan sartzen direla honetan dagoen hizkuntza eredu dela eta. Modu horretan, eskolan dagoen ikasle ijitoen kopurua handitzen da.

Aurrekoarekin bat eginez, eta ezaugarri gehiago zehaztuz, ikastetxean bi hizkuntza eredu ezberdin lantzen dira, A eta B ereduak hain zuzen ere. Era berean, lehen aipatu den bezala, eskolak dibertsitate handia dauka hainbat kultur, hizkuntza eta pentsamenduz osatuta egonik. Hortaz, aniztasuna hain indartsua izanik, ikasle batzuk duten ama-hizkuntza ez dator bat eskolan lantzen diren hizkuntzekin. Horrelako egoera, batzuetan, eskolako arazo

¹ Ikastetxearen izena ez da aipatuko horren konfidentzialitatea mantendu ahal izateko.

nagusienetarikoa bilakatzen da, izan ere, ikasleen arteko hizkuntza mailarekiko ezberdintasunak areagotzea ekartzen du (Mendiburu, 2006).

Aipatutako guztia aintzat harturik, ikertutako gaia ijitoen inklusioan oinarritzen denez, interesgarria izango da hauen kopurua ikastetxean behatzea. Kasu honetan, konkretuki, ijitoen proportzioa %10ekoa da, beraz, haien presentzia nahiko nabaria dela ikusten da. Gainera, kontuan hartzekoa da, ehuneko horren gehiengoa DBHn kokatzen dela, 26 ikasle egonik. Hortaz, eskolaren erronka garrantzitsuenetariko bat zabaltzen da, izan ere, Baslú, Campani, Palaudilrias eta Pereyrak (1998) defendatu zuten moduan, berdintasun soziala lortu ahal izateko, beharrezkoa da dibertsitatearen aurreko erantzun berezia prestatzea. Hortaz, horren aldeko prestakuntza egin arren, askotan ez da erantzun aproposa edo nahikoa horren inguruko emaitza positiboak lortu ahal izateko.

Aipatutako erronka horretatik abiatuz eta ijitoen egoera ikastetxean behatu nahian, elkarrizketen bitartez informazioa eskuratzea beharrezkoa izan zen. Prozedura horri esker, datuak biltzeko aukera hurbilagoa izanik.

Las entrevistas constituyen uno de los procedimientos más frecuentemente utilizados en los estudios de carácter cualitativo, donde el investigador no solamente hace preguntas sobre los aspectos que le interesa estudiar sino que debe comprender el lenguaje de los participantes y apropiarse del significado que éstos le otorgan en el ambiente natural donde desarrollan sus actividades (Troncoso & Daniele, 2004:2).

Hori dela eta, elkarrizketen bitartez, hasierako planifikazioarekin espero zen baino informazio gehiago lortzeko aukera egon da. Gainera, beharrezkoa izan da, prozesu osoan zehar, jarrera ulerker batekin etengabe agertzea, inolako epaiketarik egin gabe. Izan ere, ezinbestekoa da norbanakoaren usteak elkarrizketatik kanpo modu batean uztea, elkarrizketatuari askatasunez bere iritziak adierazten uzteko.

Ildo beretik jarraituz, elkarrizketa bat gauzatzen den bitartean, informazio zehatza lortzeaz aparte, galderak erantzuten dituen pertsonak bere bizitzako egoera zehatz ezberdinak elkarbanatzen ditu galdetzailearekin. Hortaz, beharrezkoa da horren aurrean, behaketa parte hartzailea aurrera eramatea, jasotzen ari den informaziotik ahalik eta datu gehien lortzeko

(Vargas Jimenez, 2012). Era berean, hitz egiteko modua, elkarrizketatuaren arabera egokitzea beharrezkoa da, modu horretan komunikazio positiboa ahalbidetu ahal izateko.

Elkarrizketetan gehiago zentratuz, informazio ahalik eta anitzena lortzeko asmoz, bi lagin ezberdin kontuan hartzea funtsezkoa izan zen, hau da, ikasle ijitoak eta irakasleak. Dena den, elkarrizketaren beharra argia izan arren, aldez aurretik, horiek ahalbidetzeko baimenak eskatzea beharrezkoa izan zen. Hori horrela izanik, lehenik eta behin, ikastetxearen zuzendariari planifikatutako prozedura azaltzea beharrezkoa izan zen, elkarrizketa guztiak eskolaren menpe baitzeuden.

Modu berean, hasieran planteatutako xedeetarikoa bat ikasle ijitoei elkarrizketak egitea zenez, gurasoen baimenak lortzea ezinbestekoa izan zen. Bete zuten baimen orria 1. eranskinean ikusi ahal da, lehen aipatu den bezala. Haien parte hartzea oso funtsezkoa zenez, baimena soilik eskatu beharrean, ikasleei ikerketa prozesua azaltzea lagungarria izan zen. Modu horretan, haien protagonismoaz ohartu ziren ikerketan parte hartzeko motibatuta sentituz. Horri esker, aipatzekoa da partaidetza oso positiboa izan zela, ikerketa prozesua ahalbidetuz.

Lehen aipatu den moduan, bi elkarrizketa mota ezberdin gauzatu ziren, ikasleena eta irakasleena, hain zuzen ere. Aipatzekoa da, elkarrizketak eskola elebidun batean egin zirela, baina partaideen ama hizkuntza gaztelania dela jakinik, aproposena elkarrizketak hizkuntza horretan gauzatzea izan da. Alde batetik, lehenengoari erreparaturik, adin tarte zabaleko partaideak egon ziren, Lehen Hezkuntzako bigarren mailatik Bigarren Hezkuntzako laugarren mailara elkarrizketatuak egonik. Hala ere, aipatzekoa da, partaide guztien %88a DBH-ko ikasleak zirela, haien kulturari buruz hitz egiteko eta defendatzeko zuten interesa oso nabaria izanik.

Aipatutakoarekin bat eginez, elkarrizketak gauzatzekoan lortu nahi izan den informazioa adieraztea garrantzitsua da. Beraz, bai ikasleekin zein irakasleekin gauzatutako elkarrizketetan zentratzea beharrezkoa da, geroago horietatik abiatuz lortu den informazioan gehiago sakondu ahal izateko. Bai ikasleen bai irakasleen elkarrizketen galderak 2. eranskinean topatu ahal dira.

Ikasleen elkarrizketa sortzeko, marko teorikoan eskuratutako informazioa kontuan hartzeaz aparte, interesgarria izan zen, Mitjavilak (2005) aurkeztutako tesia oinarri bezala erabiltzea.

Modu horretan, ijitoen historia ezagutzeaz aparte, galderak bideratzeko aukera egon zen. Lehenik eta behin, autore honek defendatzen duen moduan, “Numerosos centros educativos ponen impedimentos a que las niñas y los niños gitanos acudan a clase en compañía de niños que no son gitanos” (Mitjavilak, 2005:279). Hortaz, beraien aburuz zer nolako ezberdintasunak dauden familia ijitoen eta ez ijitoen artean ezagutzea interesgarria izan zen.

Ildo beretik jarraituz, Montoyak (1988) ijitoen ezaugarriak familiaren garrantzia eta sentimendu kolektiboaren beharra goraiatuz definitu zituen, haien kulturaren ezaugarri nagusiak deskribatzea eskatu zitzaien. Modu berean, ijitoen hizkuntza ezagutzen eta erabiltzen duten galdetu zitzaien haien eguneroko ohiturak ezagutzeko helburuz. Ez bakarrik hori, Hezkuntza Sistemarekiko duten harremana ezagutzeko asmoz, eskolarekiko interesa, pertzepzioa eta garrantziari buruz galdetu zitzaien, horri esker, eskolarekiko duten jarrera ezagutu ahal izateko.

Modu berean, behin haien eskolarekiko pertzepzioa ezagututa, ikastetxearen partetik zer motatako aldaketak eta ikasketak zabaltzea proposatzen zuten interesekoa izan zen. Izan ere, galdera horren bitartez, ijitoen interesak eta motibazioak ezagutzea ahalbidetu zen, horiek eskolan integraturik zeuden ezagutuz. Ildo beretik jarraituz, garrantzitsua da kontuan izatea, familia ijitoek gehienetan ez dutela eskola beraien posibilitateen barnean sartzen. Hau da, eskolarekiko duten balorazioa altua da, baina beraien seme-alabentzako ez den zerbait bezala interpretatzen dute (Abajo Alcalde, 2004). Hortaz, ikasleen elkarrizketarekin bukatzeko, autore horren ikuspuntutik abiatuta, haien etxeetan ikasteari ematen dioten garrantziaz galdetzea aproposa izan zen. Modu horretan, alde aurretik galdetutako haien interesekin erlazionatzeko aukera egongo baitzen. Bukatzeko, haien etorkizuneko ogibideari buruz galdetu zitzaien haien gogoak ezagutzeko asmoz.

Beste aldetik, irakasleen elkarrizketari erreparatuz, Lehen Hezkuntzako zein Bigarren Hezkuntzako irakasleek parte hartu zuten. Kasu honetan, Bigarren Hezkuntzako irakasle partaideen kopurua handiagoa izan zen, baina ikasleekin konparatuz, portzentajeak ez zeuden hain aldendurik. Izan ere, Bigarren elkarrizketan parte hartu zuten irakasleen %66a Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleak izan ziren. Hortaz, alde aurretik aipatu den moduan, ezberdintasunak egon arren, horiek ez ziren hain nabariak izan.

Irakasleen elkarrizketa sortzeko, marko teorikoan ikertutakoaz aparte, Martinez, Cachón, Zagalaz eta Molero (2012) aurkeztutako irakasleen perspektibak aintzat hartzea interesgarria izan zen. Izan ere, autore horien ikerketan oinarrituz, galdera batzuk kontuan izatea baliagarria izan zen. Horren ondorioz, irakasleak ikasle ijitoekin esku-hartze espezifikoak egitearen alde badauden ezagutzea interesgarria da. Izan ere, horrelakoak egiterakoan zer motatako emaitzak lortzen diren ezagutu ahal izateko aukera egon zen. Ildo beretik, ikerketa berbera eredugarri izanik, familia zein ikasle ijitoekin izandako arazoei buruz galdetzea interesgarria izan zen, askotan haien gainean ezartzen diren aurreiritziak baieztatzen diren ala ez ezagutzeko.

Modu berean, Abajo Alcaldek eta Carrascok (2006) definitu zituzten ijitoen hezkuntza arrakastarako faktoreak aintzat hartuta, beharrezkoa izan zen elkarrizketan horren inguruko informazioa lortzen saiatzea. Modu berean, interesgarria da kontuan izatea, askotan, Hezkuntza Sistema behatzean, informazio eta material eskasa dagoela ijitoen kulturaren inguruan (De Haro Rodriguez, 2009), hortaz, elkarrizketatutako irakasleen ikuspuntua horren inguruan ezagutzea funtsezkoa izan zen. Beraz, hezkuntza inklusiboa kultura ijitoa aintzat harturik haien ikasleekin lantzen duten ezagutzea helburutzat hartu zen.

Bukatzeko, ikasleekin bezala, familia ijitoen interesari eta inplikazioari buruz galdetzea garrantzitsua izan zen. Izan ere, aldez aurretik aipatu den moduan, familia umeen garapenean funtsezko eragilea da. Modu horretan, bi perspektiba ezberdinak ezaguturik, ondorioak ateratzea posiblea izango litzateke. Hortaz, bai gurasoen interesari buruz bai haien inplikazioari buruz galdetzea funtsezkoa izan zen. Azkenik, hobekuntzarako aldaketa proposamenak egiteko aukera eman zitzaien haien iritziak gaiaren inguruan zabaldu zezaten.

Bukatzeko, interesgarria da aintzat hartzea, ikerketa prozesuan zehar erabili den elkarrizketa kualitatiboa izan dela, izan ere, horren bitartez, informazio pertsonala, kulturala eta soziala eskuratzea posiblea izan da. Gainera, elkarrizketa mota horren bitartez, komunikazioa zuzena da, elkarrizketatuen talde sozialari buruzko informazioa lortzea posiblea izanik (López Estrada & Delaviers, 2011). Hori dela eta, horrelako egitura erabiltzea funtsezkoa izan da galderen erantzunez aparteko informazioa lortu ahal izateko.

Hortaz, aipatutako elkarrizketaren prozedurari esker, gaur egun errealitatean ematen diren testimonio ezberdinak ezagutzea posiblea izan da. Hori dela eta, horietan lortutako informazioa zehaztea garrantzitsua izango da, ikerketa bibliografikoarekin alderatu ahal izateko. Beraz, horretan gehiago sakonduz, beharrezkoa izango da ikerketa prozesuan sortu diren elkarrizketak zein lortu diren emaitzak alde aurretik sortutako behaketa bibliografikoarekin alderatzea, egoera horren ondorioak lortu ahal izateko.

4. Emaitzak eta ondorioak

Behin elkarrizketetan eskatutako informazioa azalduta, garrantzitsua izango da horren bitartez lortutako erantzunak eta emaitzak era objektiboenean ezagutzea. Horretarako, ikasleen zein irakasleen usteak azalduko dira ijitoen egoeraren inguruko ondorioak atera ahal izateko. Alde batetik, ikasleei dagokionez, familia ijitoen eta ez ijitoen artean dauden ezberdintasunei buruz galdetzerakoan, emaitzak argiak izan ziren. Alde batetik, %82ak bi kultura horien artean ematen diren ezberdintasunak azaldu zituen; horretarako, ohiturak, usteak, gizon eta emakumeen eginkizunak eta hitz egiteko moduak aipatu zituzten, batik bat. Beste aldetik, aldiz, %18ak ezberdintasunik ez daudela goraipatu zuen, izan ere, elkarrizketatu batek aipatu zuen moduan, “No hay diferencias, todos somos personas”.

Ildo beretik jarraituz, kulturaren definizioari buruzko erantzunak kontuan hartuz, interesgarria da aintzat hartzea eman ziren erantzunak, zeinetan familien elkartasuna nagusiki defendatu zuten. Izan ere, haien aburuz, familien batasuna eta errespetua etengabekoa da, familiako kide guztiak egoera txarretarako zein onetarako egonik. Ildo beretik jarraituz, beharrezkoa da zehaztea, lege propioak dituen kultura bezala definitu zutela. Izan ere, izateko, pentsatzeko eta hitz egiteko modu ezberdinak dituen kultura bezala definitu zuten.

Azken ideia horrekin bat eginez, interesgarria da kontuan izatea hitz egiteko modua edo ijitoen hizkuntzaren erabilera. Ildo horretatik abiatuz, %73ak hizkuntza ezagutzen eta erabiltzen duela adierazi zuen. Dena den, kontuan hartzekoa da, bakarrik testuinguru ijitoetan praktikan jartzen dutela; hala nola, familian, lagun ijitoen artean... Hau da, aipatu zuten haien

egunerokotasunean bai ijitoen hizkuntza bai gaztelania erabiltzen dutela. Bestalde, hizkuntza ijitoa erabiltzen ez duen %27ari erreferentzia eginez, garrantzitsua da zehaztea ehuneko hori Lehen Hezkuntzan kokatzen zela, hortaz, adinaren arabera ezberdintasunak ematen dira hizkuntza hori erabiltzerakoan.

Modu berean, Hezkuntza Sistemaren inguruko pertzepzioa, interesa eta erabilgarritasunari buruz galdetzerakoan, garrantzitsua da aipatzea, elkarrizketatuen %100ak eskola garrantzitsua dela aipatu zuela. Hori justifikatzeko, etorkizunerako duen garrantzia, bizitza arrakastatsurako duen funtsezkotasuna eta erlazioak ahalbidetzen dituela defendatu zuten, hortaz, haien eskolarekiko interesa handia zela defendatu zuten.

Ilido beretik jarraituz, eskolaren erabilgarritasunean gehiago zentratuz, gehiengoek positiboki baloratu arren, interesgarria da bi neskek emandako erantzuna kontuan izatea. Izan ere, bi neska hauek eskolarekiko interes handia zutela adierazi zuten, baina defendatu zuten haiei tokatuko zaien etorkizunari begira baliorik ez duela. Beraz, haiek aipatu zuten moduan, eskola oso erabilgarria da, baina ez beraien errealitateetan. Modu berean, eskolan aldaketak ezartzekotan, batez ere, kultura ezberdinak ikasteen zentratu ziren erantzunak. Ez bakarrik hori, kultura ijitoa Hezkuntza Sistemari sartzea eskatu zuten %100ek, hori ahalbidetzeko haien laguntza eskainiko zutela adierazi zutelarik.

Elkarrizketan, gurasoen eskolarekiko interesean zentratuz, %100ak aipatu zuten haien etxeetan ondorioak daudela haien emaitza akademikoen arabera. Baina, hori horrela izan arren, %18ak defendatu zuten haien gurasoek ez dutela bat egiten Hezkuntza Sistemarekin. Hau da, 16 urte izan bezain pronto, eskola uzteko beharrean egongo dira. Bestalde, beste %82ak ikastearen garrantzia baloratu zuten, DBHko gradua lortzea familia gehienek xedea izanik. Bukatzeko, ikasleen etorkizuneko ogibideari buruz galdetuz gero, aipatzekoa da, %90ak ikasketak behar dituzten lanbideak aipatu zutela, hala nola, irakaslea, mekanikaria, medikua, enpresaburua...

Beste aldetik, irakasleekin egindako elkarrizketari erreparaturik, beharrezkoa izango da ikasleekin egindako prozesu berdina jarraitzea. Modu horretan, era objektiboan irakasleen usteak gaiari buruz ezagutzea posiblea izango da. Lehenik eta behin, ijitoenganako interbentzio espezifikoen jarrera aztertuz, aipatzekoa da %75a horren alde agertu zela. Dena den, horren emaitza

positiboetan sinetsi arren, interbentzioaren aurrean parte hartze aktiboa eta jarraitua izatea funtsezkoa zela aipatu zuten. Bestalde, %25ak beste ikasleekin bezalako esku-hartzeak egin behar direla defendatu zuten.

Ildo beretik jarraituz, ikasle ijitoen ikaskuntza zailtasunei erreparatuz, komuneko faktoreak aipatu zituzten irakasle guztiek. Lehenik, etxean klasean lantzen dutenari buruzko jarraipen eskasa dagoela defendatu zuten. Horrekin batera, absentismoa eta gurasoen desinteresa eragina zuten faktore bezala aurkeztu zituzten. Ildo beretik jarraituz, ikasle ijitoekin sortu ahal diren arazoak eta hauek dituzten testuinguruei buruz galdetzerakoan, adinaren arabera ezberdintasunak nabaritu ziren. Alde batetik, aipatu beharra dago, irakasleen gehiengoek ez zutela ijitoak ikasle problematiko bezala definitu. Baina ezberdintasuna eman zen Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen artean. Izan ere, aipatu zuten moduan, DBHn haien ohiturak barneratuagoak dituztenez, egunerokotasunean zailtasunak topatu ahal dira, Hezkuntza Sistema askotan ez datorrelako bat kultura ijitoarekin.

Elkarrizketetan gehiago sakonduz, kultura ijitoen inklusioan zentratuz, irakasleen %100ak defendatu zuten ijitoek eskolan beste ikasle guztiak bezala integraturik zeudela. Dena den, haien kultura lantzerakoan, azaldu zuten moduan, eskolan proiektu ezberdinak gauzatu zituzten Kale Dor Kayiko (Ijito Kultur Elkarte) fundazioarekin zein irakasleen inizatibarekin, baina azken urteetan, horrelako proposamenik ez dela gauzatu zehaztu zuten. Bukatzeko, gurasoen inplikazioaren inguruan jasotako erantzunak aztertzea garrantzitsua izan daiteke; izan ere, batasuna lortu zen irakasleen iritzietan. Hauek zehaztu zuten moduan, azken urteetan hobekuntza pixka bat nabaritu den arren, gurasoek eskolaren inguruko erantzukizuna irakasleen eskuetan uzten dute, horretan inplikazioa nahiko eskasa izanik.

Behin lortutako emaitzak modu objektiboan aztertuta, aipatzekoa da, hasiera batean zehaztutako helburua bete egin dela. Izan ere, egindako ikerketa eta elkarrizketei esker, kultura ijitoa modu hurbil batean ezagutzeko aukera egon da, haien inklusioa Hezkuntza Sistematan aztertu den bitartean. Hortaz, helburua lortu bezain pronto, interesgarria izango da aztertutakoaren inguruko ondorioak zehaztea. Horretarako, elkarrizketen bitartez lortutako emaitzak zein hasierako ikerketa bibliografikoaren bidez lortutako informazioa komunean

jartzea beharrezkoa izango da. Horren harira, garrantzitsua da burura ekartzea hasiera batean Montoyak (1988) emandako familia ijitoen inguruko deskribapena; izan ere, egoera guztien aurrean familia oinarri eta erreferentzia bezala erabiltzen dutela aipatu zuen. Hortaz, elkarrizketetan ikasleek definitu zuten, familiaren elkartasunean oinarritzen dira kultur honetako kideak. Hau da, egoera zail edo ezberdin bat topatzen duten bakoitzean, haien erreferentziazko taldea beti familia da. Hori dela eta, ondoriozta daiteke, Montoyak emandako ikuspuntuak gaur egun dagoen errealitatearekin bat egiten duela.

Ilido beretik jarraituz, interesgarria da kontuan izatea elkarrizketatutako ikasleek aipatu zituzten familia ijitoen lege propioak. Izan ere, gaur egungo errealitatea behatzerakoan, ikusi ahal da familia ijitoen antolamendua ez ijitoekin alderatuz ezberdintasunak dituztela. Izan ere, alde aurretik aipatu den bezala, Crespok eta Lalueak (2003) ijitoen ohitura goiztiarrak aztertu zituzten, hala nola, ezkontza goiztiarra, lan goiztiarra... Hortaz, horrelako errealitatea aztertuta, argi uler daiteke, batzuetan Hezkuntza Sistema ez datorrela bat kultur honetako ohiturekin. Hori dela eta, ikasleen partaidetza eskolan gutxitzea gerta daiteke. Gainera, kontuan hartzekoa da De Haro Rodriguezek (2009) aipatu zuen kultura ijitoa lantzeko dagoen material eskasa. Ondorioz, deskribatutako bi faktore horiek nahasturik, ikasle hauen absentismoaren oinarria uler daiteke.

Aipatutakoarekin bat eginez, esan beharra dago, elkarrizketatuak izan ziren irakasleen kezkarik nagusienetariko bat ikasle hauen absentismoan oinarritzen dela. Hortaz, absentismo horren kausa batzuk ezagutuz gero, beharrezkoa izango litzateke horren aurreko neurriak hartzea. Horretarako, kultura ijitoa eskolako egunerokotasunean sartzea aproposa izan daiteke. Izan ere, irakasleek aipatu zuten moduan, orain arte eskola horretan gauzatu diren ekintzak, egun berezi batean zentratu dira. Baina, absentismo horren aurka jokatzeko, ikasleek eskatu zuten haien kulturaren sarrera bultzatzea aproposa izan daiteke. Modu horretan, aipatu zuten moduan, haien eskolarekiko interesa eta motibazioa altuagoa izango litzateke eskolarekiko etorrera altuagoa izanik. Horren adibide gisa, Badajozen eman zen proiektu bat azaltzea interesgarria izan daiteke, Programa de Desarrollo Gitano hain zuzen ere. Honen bitartez, ijito eskolatuak zituzten eskola ezberdinek parte hartu zuten. Honetan, bai udan bai urtean zehar jarduerak

anitzak egiten zituzten kultura ijitoaren inguruan. Hortaz, aipatzekoa da metodologia horrekin hasi zenetik, eskola horietan parte hartzen zuten ijitoen absentismoa urte batetik bestera %17an jaitsi egin zela (Romasanta, 2003). Beraz, horrelako neurriek emaitza positiboak ekarri ahal dituztela baieztatu daiteke.

Era horretan, absentismoa alde batera uzteko estrategiekin jarraituz, interesgarria izango litzateke irakasleek aipatu zuten pertsonal espezifikoen presentzia. Izan ere, kultura ijitoa ondo ezagutzen duten pertsonen parte hartzeari esker, ikasle hauen errealitatea hurbiltasun gehiagoz ezagutzea posiblea izango litzateke. Horregatik, ikastetxearekin elkarlanean aritutako Kale Dor Kayiko fundazioarekin harremanak mantentzea interesgarria izango litzateke. Modu horretan, absentismoa gero eta gehiago murriztuz, ikasle hauen arrakasta nabariagoa izango litzateke. Gainera, irakasleen %75a interbentzio espezifikoaren alde egonik, horrelakoak prestatuz gero eta ikasleen presentzia konstantea izanik, ikasle ijitoen hezkuntza garapena izugarrikoa izan zitekeen, emaitza oso positiboak lortuz.

Gainera, aipatzekoa da elkarrizketatutako ikasleen %100ak eskolaren balioa oso garrantzitsua dela defendatzen duela, hau da, horren beharra ulertzen dute. Hortaz, kontzientzia hori haien barruan izanda eta eskolako metodologian haien kultura sartuz gero, lortuko ziren emaitzak izugarrikoak izan ahal ziren. Gainera, kultura ijitoa kontuan hartzen den bitartean, gurasoen hurbiltasuna eta parte hartzea eskatu ahal da. Modu horretan, irakasleek deskribatu zuten gurasoen inplikazio eskasa alde batera uzteko aukera egonez. Izan ere, Abajo Alkaldek (1996) defendatu zuen moduan, familia ijitoek eskola baloratzen dute, baina horren aurrean porrot egingo dutelakoan daude eta egoera horrekin bukatzeko beharra dago.

Errealitate hori modu argian islatzen da elkarrizketatuak izan ziren bi nesken kasuan, beraien amek etengabe esaten zitelako ikasketak beraiek egiteko modukoak ez zirela, hau da, kapazak ez zirela izango. Hortaz, egoera horien aurrean, eskolak duen eginkizuna pentsamendu horren aurka joatea da.

La educación es un derecho humano y un elemento indispensable para el progreso económico y social de las naciones, por lo que es menester de todo gobierno reconocer que el acceso pleno y en condiciones de igualdad a la misma, se convierte en un requisito fundamental para

la potenciación de la mujer y pilar para el logro de los objetivos de la igualdad de género (Rincón, 2007:2).

Hortaz, egoera horretatik abiatuta, eskolaren eginkizuna ikasle guztien parte hartzea lortzea eta sustatzea izango da. Izan ere, horren bitartez etorkizuneko gizartea garatzeko eta prestatzeko aukera egongo baita.

Bukatzeko, interesgarria da kontuan izatea, ikasle guztiek adierazi zituzten etorkizunean lan egiteko gustukoak ziren lanbideak. Hortaz, interesgarria da kontuan izatea, %90ek adierazi zituzten lanbideek ikasketak behar dituztela. Hori dela eta, baieztatu daiteke era argi batean ikasketen garrantziaren inguruan kontzientzia handia dutela, hortaz, faktore hori eskolaren alde egonik, beharrezkoa izango da, beste elementuak jokoan sartzea hezkuntza arrakastatsua ahalbidetu ahal izateko.

Aipatutako guztia aintzat harturik, beharrezkoa da gaur egungo eskoletan ijitoen errealitatea eskolara hurbiltzeko proposamen ezberdinak planteatzea. Izan ere, modu horretan, alde zuzenetatik aipatu diren hezkuntza zailtasunak gainditzeko eta ume hauen arrakasta ziurtatzeko eskoletan zenbait aldaketa egitea beharrezkoa da. Modu horretan, eskolatik aldaketak planteatuz gero, familiekin elkarlanean aritzeko teknika ezberdinak garatu ahal dira, umeen hezkuntza prozesuan eragin positiboak lortuz. Hori dela eta, eskuragarri dagoen aldaketa nagusia eskolan kokatu ahal da, zeinak horretatik abiatuz, esparru ezberdin batzuetan eragin positiboa izan dezake.

Lehenik eta behin, ikasle ijitoak eskolaren partaide izateko, funtsezkoa izango da haien kultura eskolaren parte izatea. Horretarako, garrantzitsua izango litzateke, gai horretan esperientzia duten fundazio ezberdinen laguntza izatea, hala nola, Kale Dor Kayiko. Fundazio horren bitartez, ijitoen kultura ezagutzeaz gain, haien bizitza estiloa ezagutu eta ulertzeko aukera suertatuko da. Modu horretan, eskola aldaketarako prest aurkeztu beharko litzateke, fundazio honen proposamenak kontuan hartuz. Hori aurrera eramanez gero, elkarriketetan aipatu zituzten ijitoen errealitatez kanpoko ikastetxeak, haien egunerokotasunera egokitu ahal ziren, erabilgarritasuna nagusiagoa izanik.

Ildo beretik jarraituz, interesgarria izango litzateke, horren inguruko irakasleen formazioa handitzea. Era horretan, profesionalen ezagutzak alor honetan garatuko ziren kultur honen inguruko egoerak ulertuz eta horren aurreko erantzun positiboak hartuz. Modu horretan, eskolan lantzeko esku-hartzeak prestatzerakoan haien errealitatea kontuan hartzea errazagoa izango litzateke. Gainera, horri esker, ikasle ijitoaren eta irakaslearen arteko feed back positiboa lortzea posiblea izango litzateke.

Aurrekoarekin bat eginez, beharrezkoa izango litzateke kultura ijitoa eskolako egunerokotasunean sartzea. Horretarako, kultur aniztasunaren egun bereziak prestatzeaz aparte, baliagarria izango litzateke ikasgai ezberdinetan kultura ijitoen ezaugarriak sartzea. Hala nola, heziketa fisikoan dantza flamenkoak; historia eta geografian, ijitoen nondik norakoak historian zehar; lengoaian, hizkuntza ijitoaren hitzak eta erabilerak; musikan, ijitoen abesti tipikoak, beste askoren artean. Hori horrela izanik, ikasle ijitoak motibatuta egoteaz aparte, beste ikasle guztiek kultura horren inguruko ezagutzak lortzeko aukera egongo litzateke.

Proposamenekin jarraituz, aldez aurretik ikertutako guztia kontuan hartuta, argi dago familien parte hartzea eskola batzuetan arazo bezala topatzen dela. Hortaz, beharrezkoa izango litzateke familien hurbiltasuna eta partaidetza sustatzea. Horretarako, haietan zentratutako ekintzak jorratzea interesgarria izango litzateke; beraz, hori gauzatu ahal izateko, beharrezkoa izango litzateke haien interesak eta beharrak aintzat hartzea. Modu horretan, haiek eskolara hurbilduz gero, erraztasun handiagoak egongo lirateke irakasle-gurasoen arteko lankidetzak jarraituagoa izateko eta haien eskolarekiko balorazioa positiboagoa izateko.

Modu berean, familien intereseko ekintzak sortzeaz aparte, hauek informazio eta ezagutza iturri bezala erabiltzea aproposa izango litzateke. Era horretan, haien bizitzako esperientzietatik ikasteaz aparte, irakasleentzako, ikasleentzako zein beste gurasoentzako formazio ekintzak bezala erabili ahal ziren. Horri esker, edozein kulturetako ikasleak beste kultura ezberdinetatik ikasteko aukera izango zuten. Aipatutako guztia kontuan hartuta, beharrezkoa da zehaztea proposamen guzti hauek aurrera eramateak izugarritzko esfortzua eskatuko duela; hala ere, irakasleen lankidetzak eta gogoak izanez gero, lortu ahal diren emaitzak oso positiboak izan ahal dira.

Lanari amaiera emateko helburuz, interesgarria da kontuan izatea hobetu beharreko faktoreak. Izan ere, denbora eta esperientzia gehiagorekin emaitza mamitsuagoak lortzeko aukera egongo litzateke. Lehenik eta behin, elkarrizketen lagina handiagoa izatea interesgarria izango litzateke, iritzi gehiago eta ezberdinak ezagutu ahal izateko. Modu horretan, ondorioztatutako ideiak fundamentu argiagoa izango zuten proposamena zehatzagoa izanik. Aipatutakoarekin bat eginez, proposamena batzuetan irekiegia izan daiteke, izan ere, hasierako aldaketa orokorretatik hasia beharrezkoa izango litzateke. Dena den, denbora gehiago izanez gero, posiblea izango litzateke zenbait aldaketekin hasia eta horren funtzionamendua frogatzea. Modu horretan, egindako lana pixkana ebaluatuz eta hurrengo pausurako ondorioak ateraz.

Bukatzeko, kontuan hartzekoa da, hasiera batean deskribatu diren umeen garapen psikologikoaren eragile nagusiak. Izan ere, behin baino gehiagotan zehaztu den moduan, familia eta eskola umeen garapenean lehen mailako faktoreak dira. Hortaz, lanean zehar, eskolaren profesionalekin zein ikasleekin elkarrizketa pertsonalak gauzatzea posiblea izan da, baina gurasoekin harremanetan jartzea ez da posiblea izan. Hori dela eta, hurrengo baterako horretan gehiago zentratzea eta hauen interesetatik abiatzea interesgarria izango litzateke gurasoen interesguneak eta motibazioak ezagutzeko. Gainera, modu horretan, eskolarekiko duten iritziak lehenengo pertsonan ezagutzea posiblea izango litzateke. Beraz, horretan zehaztuz, garrantzitsua izango litzateke familiei buruzko informazioa zein informazio hori lortzeko bideak lortzea, haien partaidetza ziurtatzeko.

Hortaz, aipatutako guztia aintzat harturik, esatekoa da, lan hau aurrera eramanez bitartean, kultura ijitoari buruzko ezagutza eta hurbiltasun zuzena lortzea posiblea izan dela. Modu horretan, kultura horren inguruko pertzepzioa guztiz aldatuz eta alde zuzeneko iritziak baztertuz. Izan ere, aipatzekoa da, gaurko munduan, aurreiritziak besteekin harremanetan jartzeko momentuan baldintzagarriak direla, hori gizartearen akats nagusienetariko bat izanik; beraz, horiekin bukatzea beharrezkoa da. Era berean, lan honen bitartez, ijitoen inklusioa Hezkuntza Sistemari posiblea dela ikusi ahal da etorkizunean sartu ahal diren aldaketak praktikan jartzeko aukeraren atea zabalik izanik.

5. Bibliografía

- Abajo Alcalde, J.E. (1996). El fracaso escolar de los niños gitanos o la perplejidad ante un sistema social y escolar instalados en la contradicción. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 26, 55-76.
- Abajo Alcalde, J.E. (2004). Infancia gitana y paya: Convivencia y conflictos en la escuela. *TABANQUE*, 18, 97-116.
- Abajo Alcalde, J.E. & Carrasco, S. (2006). El éxito escolar del alumnado gitano: centros escolares y familias gitanas en la encrucijada. *Revista Aula de Innovación Educativa*, 149, 59-63.
- Arranz, E. & Oliva, A. (2010). La influencia del contexto familiar en el desarrollo psicológico durante la infancia y la adolescencia. En E. Arranz, A. Oliva. (Coord), *Desarrollo psicológico en las nuevas estructuras familiares* (pp. 15-34). Madrid: Pirámide.
- Basalú, X., Campani, G., Palaudilrias, J.M. & Pereyra, M.A. (1998). *La educación intercultural en Europa, un enfoque curricular*. Barcelona: Pomares-corredor.
- Carbonell, F. (1995). *Inmigración: diversidad cultural, desigualdad social y educación*. Madrid: Ministerio de Educación y Ciencia.
- Crespo, I. & Lalueza, J.I. (2003). Culturas minoritarias, educación y comunidad. En M.A. Essomba. (Coord), *Educación e inclusión social de inmigrados y minorías. Tejer redes de sentido compartido* (pp. 293-314). Barcelona: PRAXIS.
- De Haro Rodriguez, R. (2009). El alumnado gitano en los centros educativos: Claves para desarrollar una educación inclusiva e intercultural. *Anales de Historia Contemporánea*, 25, 189-199.
- Essomba, M. A. (2006). *Liderar las escuelas interculturales e inclusivas. Equipos directivos y profesorado ante la diversidad cultural y la inmigración*. Barcelona: GRAO.
- García Guzman, A. (2005). La educación con niños gitanos. Una propuesta para su inclusión en la escuela. *Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, vol 3, 2015-02-22an hartuta, hemendik: http://www.ice.deusto.es/RINACE/reice/Vol3n1_e/GGuzman.pdf
- Grupo INTER. (2005). Racismo: qué es y cómo se afronta. Una guía para hablar sobre racismo. 2015-02-22an hartuta, hemendik: <http://www.uned.es/centrointer/guia%20racismo.pdf>
- Lacasa, P. (2010). 24. Entorno familiar y educación escolar: la intersección de dos escenarios educativos. En C. Coll, J. Palacios, A. Marchesi. (Eds.), *Desarrollo psicológico y educación. 2. Psicología de la educación escolar* (pp. 597-622). Madrid: Alianza.

- López Estrada, R. & Desleuvers, J.P. (2011). La entrevista cualitativa como técnica para la investigación en Trabajo Social. *Margen*, 61, 1-19.
- Martinez, M., Cachón, J., Zagalaz, M.L. & Molero, D. (2012). Los problemas de aprendizaje escolar de los niños gitanos desde la perspectiva del profesorado de primaria. *Educatio Siglo XXI*, 30, 365-382.
- Mendiburu, I.V. (2006). Lengua, escuela e inmigración. *Cultura y Educación: Revista de teoría y práctica*, 18, 127-142.
- Mitjavila, M.A. (2005). Desarrollo de capacidades en alumnos gitanos de educación primaria. 264-284.
- Montoya, J.M. (1988). *El pueblo gitano ante la escuela*. 2015-02-22an hartuta, hemendik: <http://www.aecgit.pangea.org/memoria/pdf/Juan%20Manuel%20Montoya.pdf>
- Poveda, D. (2001). La educación de las minorías étnicas desde el marco de las continuidades-discontinuidades familia-escuela. *Gazeta de Antropología*, 17, 17-31.
- Rincón, J. R. (2007). Derecho a la educación. *El adelanto de las mujeres a través del trabajo parlamentario: comentarios a las iniciativas de género*, 1-9.
- Robles Martín, S. (2009). Sobre la evolución de la sociedad, la escuela y el docente. *Gibralfaro*, 64, 15.
- Rodríguez, A. (2007). Principales modelos de socialización familiar. *Foro de educación*, 9, 91-97.
- Romasanta, A.M. (2003). El absentismo escolar de los niños gitanos es de un 19%. *El Periódico Extremadura*. 2015-04-26an hartuta, hemendik: http://www.elperiodicoextremadura.com/noticias/badajoz/absentismo-escolar-primaria-ninos-gitanos-es-19_65829.html
- Troncoso, C. & Daniele, E. (2004). *Las entrevistas semiestructuradas como instrumentos de redacción de datos: una ampliación en el campo de las ciencias naturales*. 2015-04-04an hartuta hemendik: <http://www.uccor.edu.ar/paginas/REDUC/troncoso.3.pdf>
- Vargas Jimenez, I. (2012). La entrevista en la investigación cualitativa: nuevas tendencias y retos. *Revista Calidad en la Educación Superior*, 3, 119-139.